

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GASTEIZKO UDALA

ENSANCHE 21

Gasteizen etxebizitzak eta bizitokietarako eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko araudia. 2018ko ekitaldia

2018ko maiatzaren 23an eginiko bilkuran, Ensanche 21 Zabalgunea udal hirigintza elkartearen Administrazio Kontseiluak Gasteizen etxebizitzak eta bizitokietarako eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko araudia onetsi zuen, eta dagozkion ondorioetarako jakinarazten da hori.

Gasteizen etxebizitzak eta bizitokietarako eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko araudia. 2018ko ekitaldia

1. artikulua. Xedea

1. Araudi honen helburua laguntza ekonomikoak emateko prozedura eta baldintzak ezartzea da, Gasteizko udalerrian 2018ko ekitaldian etxebizitzak eta bizitegiarako eraikinak birgaitzeko ekintzak sustatzearen.

2. Araudi honetan jasotako laguntzek izaera finalista dute, eta ematea justifikatu duten birgaitze lanak finantzatzeko baino ezin izango dira erabili. Gainera, laguntzek interesik gabeko hipoteka maileguen izaera izango dute. Mailegua benetan ematen denetik hamar urteko epearen barruan etxebizitza irabaziekin eskualdatzen bada, itzuli egin beharko dira; epe horretan etxebizitza edo lokalaren jabetza mantentzen bada, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzat joko dira automatikoki.

3. Araudi honetan jaso ez direnetarako, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzan aurreikusitakoari jarraituko zaio birgaitzeko laguntzak ematean, eta edonola ere, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrari.

4. Araudi honen ondorioetarako, hauek joko dira bizitegiarako eraikintzat: birgaitze lanak egin ondoren, gutxienez azalera erabilgarriaren bi heren –beheko solairua kontatu gabeko etxebizitzarako baliatzen dutenak.

2. artikulua. Eremuak eta lehentasunez birgaitu beharreko alderdiak mugatzea

1. Birgaitzeko laguntzen araudi hau Gasteizko udalerrri osoari aplikatuko zaio.

2. Erdi Aroko hirigunea lehentasuneko aplikazio-eremua izango da, indarrean dagoen Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Berezian xedatutakoari jarraiki. Inguruan dituen honako kaleak gehituko zaizkio horri:

- Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea, zenbaki bakoitiak, 1etik 25.era.
- San Frantzisko kalea, zenbaki bikoitiak.
- Kanpokale Berria, zenbaki bikoitiak; Santa Maria Kantoia, 2 Bis, 4.a eta 19.a
- Bueno Monreal kalea, zenbaki bikoitiak; Antepara kalea, zenbaki bikoitiak.

- Tornu kalea; San Prudentzio ikastetxeko kalea, 4.a eta 6.a
- Aska kalea.
- San Ignazio Loiolakoaren kalea, zenbaki bakoitiak; Bilbo plaza, 1. a eta 5.a; Arriagako atea, 10.a eta 12.a

3. Koroatze auzoa ere lehentasuneko izango da, zein zona degradatutzat jo baita, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko abenduaren 22ko agindua bitartez, l. eranskinean jaso da muga-planoa.

4. Orobat, auzo hauek izango dute lehentasuna: Abetxuku, Adurtza, Ariznabarra, Zaramaga eta Zabalgunea.

2. eranskinean jasotzen dira lehentasuneko alderdien mugak.

3. artikulua. Babestuko diren jarduerak

1. 2018ko ekitaldirako laguntza-deialdian lehentasuneko joko dira eraikinetan egiten diren birgaitze-lan hauek:

A. Igogailuak instalatzea horrelakorik ez duten eraikinetan, edo igogailua aldatzea, baldin eta kabinaren espazioa handitzeko funtsezko egiturazko obrak egin behar badira.

B. Ingurutzaila energetikoa hobetzeko lanak, 1979ko Eraikuntzako Oinarrizko Araua-Baldintza termikoak (NBE-CT-79) indarrean jarri aurretik egindako eraikinetan. Jarduerak integrala izan beharko du –Erdi Aroko hirigunean, ordea, partziala izan ahalko da– eta eraikinaren kalifikazio energetikoa gutxienez maila bat hobetuko du.

C. Egitura sendotzeko lanak, eraikinen ikuskapen teknikoan (EIT) jasotakoaren arabera: 1., 2. eta 3. graduak, egitura patologiak eta hondamena eragozteko.

D. Legezko xedapenak eta ezarritako epeak betez jabeen erkidegoek egin beharreko eraikinen ikuskapen teknikoen txostenak, eta zuzeko egitura duten eraikinen kontserbazio-egoera zorrotzago aztertzeke benetan hartu diren laginak.

E. Hemeretzigarren mendeko Zabalguneko balkoiak eta begiratokiak birgaitu, zaindu eta zaharberitzea, 3. eranskineko mugaketaren arabera (higiezineko guztiak hartu behar ditu barne).

2. 2018ko ekitaldirako laguntza-deialdian oro har babestu beharreko birgaitze jardueratzat joko dira eraikin eta etxebizitzetan egiten diren lan hauek:

- Irisingarritasun unibertsala hobetu eta traba arkitektonikoak kentzeko lanak eraikinetan eta etxebizitzetan, baita lokaletan ere, horietarako sarrera bide publikotik bada eta komunitateko lanak badira.

- Eraikinaren energia-eraginkortasuna, isolamendu akustikoa eta osasungarritasun baldintzak hobetzeko lanak, NBE-CT-79 indarrean jarri aurretik egindako eraikinetan, eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa betetzen bada. Ez zaie izaera indibidualerako lanei aplikatuko.

- Etxebizitzan zein eraikinean egitura egokitzeko egin beharreko lanak, horiek zaindu eta honda ez daitezzen, edo hirugarrenek kalterik izan ez dezaten.

- Katalogatutako eraikinen historia, arte edo ingurumen interesa gordetzeko lanak. Horrelako lantzat joko dira eraikinen babes maila edo arkitektura, eraikuntza eta apaintzeko elementuen balioa direla kausa, zaharberitzean edo teknika eta material tradizionalan espezializatutako eskulana erabili beharra duten lanak.

- Zaharkituta geratu diren edo ez dauden iturgintza, saneamendu, elektrizitate, berokuntza, gas edo telefono instalazioak edo suteen kontrako babestekoak eraberritu edo aldatzea, 1968. urtearen aurretik egindako eraikinetako elementu komunetan.

- Eusko Jaurlaritzaren 307/2002 Dekretuan birgaitze integratuko areatzat eta bizitegiatarako area degradatutzat jotakoetan, eraikinen eta etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren irizpideetara egokitzeko behar diren lanak, 1968. urtearen aurretik egindako eraikinetan eta beti ere eraberritu ez badira.

- Antolamendutik kanpokotzat jotako eraikinen hirigintza araudira egokitzeko behar diren lanak.

- Gasteizko etxebizitza edo bizitegi-eraikinetako kanpoaldeko leihoak (markoak eta kristalak) aldatzea. Etxebizitza eta onuradun bakoitzeko gehienezko kopurua 2.000,00 euro izango da. Orotara 400.000,00 euroko zuzkidura izango du partidak. Laguntza jasotzeko, leihoak eta instalazioak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- CE marka edukitzea.

- Kristal bikoitzak isolamendu termiko sendoa (ATR) eduki beharko du, eta U balioak 1,40 W/m²K-koa edo txikiagoa izan beharko du.

- Kristaldun baoak etxebizitzaren kanpoko aldeko itxituraren zati izan behar dute; etxebizitzaren barruko itxiturako leihoak (etxebizitza barruko aretoak banatzeko itxiturak) ez dira laguntzaren xede.

Etxebizitzaren titularrek baliatu nahi duten laguntza publikoa eraikinen elementu komunei eragiten dieten lanak egiteko bada, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak eginda egon beharko du laguntzaren eskabidea formalizatu aurretik, erakinen antzinatea edozein delarik. Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak Gasteizko Udalaren sarrera-erregistroko zigilua izan behar du. Ez da laguntzarik emango aipatutako txostenean 1, 2 eta 3. gradu gisa eskatutakoak barne hartzen ez dituzten lanak."

Aldez aurretik administrazio agindu batez lanen bat egitea ezarri bada, ez da laguntzarik emango lan horiek barne hartzen ez dituzten obretarako.

Laguntzetan ez dira sartuko lan hauek: eraikinen edo instalazioen ohiko mantentzerako lanak, altzariak, osagai apaingarriak, eta egiturazko konponketa bera egin aurretik hartu beharreko neurri lagungarriak.

Antzinatea zenbatzerakoan, etxebizitza lehenengoz erabiltzeko lizentziaren data hartuko da erreferentziatzat eta, halakorik ezean, obra amaierako egiaztatzea, obra lizentzia, edo, azken aukera gisa, katastroan edo erakinen erroldan jasotakoa.

Edonola ere, birgaitzeko esku-hartzeek indarreko antolamenduen xedapenak bete beharko dituzte, eta behar diren administrazio-baimenak izan.

Erdi Aroko hiriguneko BIPBaren arabera antolamendutik kanpo dauden elementuen titularrei, eta hirian berariaz antolamendutik kanpo dauden titularrei edo betearazpen aginduek eragindakoei ez zaie lanetarako laguntzarik emango baldin eta lan horien barruan ez badira sartzen horiek hirigintza araudiari egokitzeko eta betearazpen aginduan ezarritakoak, salbu eta etxebizitzaren gutxieneko bizigaitasun baldintzak berreskuratzeko edo eraikinen auri-egoera eragozteko beharrezkoak direnean, edo hirugarrenei kalte larririk ez egiteko direnean.

4. artikulua. Aurreikusitako kreditua

Araudi honetan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko guztira 2.500.000,00 euro jarriko dira 2018ko ekitaldian, Administrazio Kontseiluak kopuru hori handitu ezean, behar bezala arrazoituta. Laguntza-deialdia aurrekontuko kopurua agortzen denean amaituko da, eta, nolahi ere, 2018ko abenduaren 31n, inolako luzapenik gabe.

5. artikulua. Laguntzen hartzaileak

1. Birgaitzeko laguntzak obrak eragindako etxebizitzaren eta lokalen jabeen edo jabe eta gozamendunei emango zaizkie, banako gisa eta haien errenta-maila eta familia-egoera kontuan izanik; hala ere, elementu komunean egin beharreko esku-hartzeetarako laguntzen kasuan, jabetza horizontalaren legearen arabera etxejabeen erkidegoaren ordezkaria denak tramitatu beharko ditu.

2. Eskatzaileei eman beharreko laguntzen zenbatekoa zehazteko –birgaitu beharrekoa elementu komuna zein elementu pribatiboa izan– familia-egoeraren arabera errenta-tarte hauek ezartzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko babes ofizialeko etxebizitzetako buruzko araudian ezarritakoekin bat datozenak:

a. 1. tarte: 9.000,00 eurotik beherako sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.

b. 2. tarte: 9.000,01 eurotik 15.000,00 eurora bitarteko sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.

c. 3. tarte: 15.000,01 eurotik 25.000,00 eurora bitarteko sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.

d. 4. tarte: 25.000,01 eurotik 39.000,00 eurora bitarteko sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.

e. 5. tarte: 39.000,01 eurotik 50.000,00 eurora bitarteko sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.

2. eranskinean zehazten dira bizikidetzak-unitateen eta sarrera mailen tartekak.

3. Birgaitu nahi den etxebizitzak jabe bat baino gehiago badu –irabazizko ondasun erregimenetik kanpo– laguntzak jabe bakoitzari emango zaizkio, jabetzan duen partaidetza-ehunekoa eta dagokion familia-egoera eta errenta-tarte aintzat hartuz. Adierazi egin behar da jabe bakoitzaren batek laguntzari uko egiten badiu, gastuak eta lan guztiak ordainduko dituzten beste mesedetan (jabe bakoitzaren, gozamenaren edo etxebizitzaren okupatzen dutenen mesedetan). Lan indibidualak badira, etxebizitza horretan jendeak egon behar du erroldatuta.

4. Bizitegi-erakinean PFEZ ordaintzen duen aretorik bada, horiek ere jaso ahalko dituzte erakinearen elementu komunetan egiten diren lanetarako laguntzak, horietan duten partaidetza-kuotaren proportzioan, garajeetarako aretoen kasuan izan ezik.

5. Ezinbesteko arrazoiek eragindakoek ere jaso ahalko dituzte laguntzak, Udalak subsidiarioki esku hartu behar izan duenean urgentziazko arrazoiak direla eta.

6. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

1. Eskatzaile bakoitzari dagokion errenta-tartearen eta egin beharreko obra motaren arabera eskainiko zaizkio birgaitzeko laguntzak.

2. Laguntzaren xede izango dira babestu daitekeen obren aurrekontua, 3. artikuluan jasotakoaren arabera; proiektuarekin edo lanarekin lotutako ordainsari teknikoak; eraikinaren ikuskapen teknikoaren txostena (erkidegoarentzako laguntza gairatzen duen zatian), eta ordaindu beharreko eskubideak, tasak edo aplikatzekoak diren beste prezio publiko batzuk –balio erantsiaren gaineko zerga kanpo geratzen da–.

3. Babestekoa den aurrekontuaren gehieneko muga eragiketa honen emaitza izango da: etxebizitza bakoitzaren azalera erabilgarri konputagarria –trastelekua eta garajea kontatu gabebider laguntza eskatzen den unean Gasteizko udalerrian indarren dagoen erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak saltzeko modulua.

4. Etxebizitza bakoitzaren azalera erabilgarri konputagarria benetako azalera erabilgarria izango da, gehienez 90 metro koadroraino; kopuru hori 120 metroraino handitu daiteke jabeak familia ugaria badira eta etxebizitzan benetan bizi badira, edo Gasteizko udalerriko menpeko toki erakundeetako familia bakarreko etxe isolatuak badira.

5. Etxebizitza berean hainbat lan eginez gero, bost urtez metatzen diren babestutako gehieneko aurrekontuen batuketara ezingo da gehieneko muga horretatik gorakoa izan.

6. Ez da laguntzarik tramitatuko elementu komunei dagozkien lanen aurrekontua mila eurotik beherakoa bada, eta elementu pribatiboei dagozkienak bostehun eurotik beherakoak badira, bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak 1. eta 2. tarteetan daudenean salbu.

7. Ondoko taulan zehazten dira birgaitzeko lanetarako laguntzen zenbatekoak, babestekoa den gehienezko aurrekontuaren ehunekoetan, onuradunen errenta-tartearen eta familia-egoe-raren arabera:

Laguntzen zenbatekoak, babestekoa den gehienezko aurrekontuaren ehunekoetan

ERRENTA-TARTEA ETA FAMILIA-EGOERA	ELEMENTU PRIVATIBOAK		ELEMENTU KOMUNAK		
	ORO HAR	ERDI AROKO HIRIGUNEA, EREMU DEGRADATUAK ETA LEHENTASUNEZKO EREMUAK	ORO HAR	LEHENTASUN EZKO EREMUAK	ERDI AROKO HIRIGUNEA ETA LEHENTASUNEZKO EREMUAK
1	20,00	40,00	30,00	50,00	60,00
2	15,00	35,00	27,50	45,00	50,00
3	10,00	30,00	22,50	40,00	45,00
4	5,00	20,00	15,00	30,00	35,00
5	0,00	7,50	5,00	15,00	20,00

Obra komunitarioa bada eta laguntza aitortu zaien pertsonen ehuneko 70 gutxienez 1. errenta-tartean badago, laguntzaren zenbatekoa ehuneko 5 gehituko zaie 1. tarteko eskatzaileei, babestekoa den gehienezko aurrekontuaren arabera.

8. 2018ko ekitaldirako, hobariak izango dira 3. artikuluan lehentasunezko zat jotako lanetarako partidetarako, honen arabera:

– ehuneko 20, igogailuak instalatzeko, horrelakorik ez duten eraikinetan, edo igogailua aldatzeko, baldin eta kabinaren espazioa handitzeko funtsezko egiturazko obrak egin behar badira.

– ehuneko 15, inguratzaile termiko osoaren portaera energetikoa hobetzeko lanetan –Erdi Aroko hiriguneko lanetan izan ezik, horietan jarduerak osagaietako bat bakarrik ukitu baitezake–, eta eraikinaren kalifikazio energetikoa maila batean hobetzen badute.

– ehuneko 30, egitura sendotzeko lanak egiteko, EITean jasotakoaren arabera: 1., 2. eta 3. gradukoak, egitura patologiak eta hondamena eragozteko.

– 500,00 euro, gehienez, eraikinen ikuskapen teknikoen txostenak egiteko, 2018ko abenduaren 31ko dataz 50 urte edo gehiagoko antzinatasuna duten eraikinen kasuan. EITek indarrean eta erregistratuta egon beharko dute, eta hiru hilabetetik gorakoa ez den antzinatasuna eduki, laguntza eskatzen denetik. Zurezko egitura duten eraikinen kasuan handitu egin ahalko da zenbateko hori, kontserbazio-egoera zorrotzago aztertzeke benetan hartu diren laginen kostuaren ehuneko 75 sartuta. Horretarako aurrekontua 250.000,00 eurokoa izango da gehienez.

9. Bestetik, laguntza ehuneko 20raino handituko da zaharberritzeko eta kontserbatzeko lan-unitateetan, baldin eta zaharberritzean edo teknika eta material tradizionaletan espezializatutako eskulana erabili behar bada, eraikinen babes maila edo arkitektura, eraikuntza eta apaintzeko elementuen balioa direla kausa.

Besteak beste, lan hauek hartuko dira aintzat:

– Zurezko begiratokiak zaharberritu edo ordeztea.

– Fabrikak eta akaberak zaharberritzea, teknika eta material tradizionalak erabiliz.

– Zurezko jatorrizko bilbadurak zaharberritzea, edo horien ordeze elementu arinak jartzea, jatorrizko eraikuntza sistemarekin bateragarriak, hormigoien erabilera bazter utzita.

10. Zehazki, lehentasunezkoztat joko da hemeretzigarren mendeko Zabalguneko eraikinetako balkoiak eta begiratokiak —eguzkia jasotzeko elementu tradizionalak— birgaitu, zaindu eta zaharberritzea, 3. eranskinaren arabera, baldin eta zaharberritzean edo teknika eta material tradizionaletan espezializatutako eskulana erabili behar bada, eta eraikinaren estetikari eusten bazaio.

Programa honetan parte har dezaketen eraikinak Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Zabalguneko eraikinen katalogoan daudenak izango dira. Programak 400.000,00 euroko zuzkidura izango du, gehienez.

Laguntzak araudi honen irizpideen arabera emango dira, ehuneko 20 gehituta. Programa honetan laguntza eskatu duenak araudiaren 5. artikuluan zehaztutako errenta-tarteak gainditzen badu, 5. tartekotzat joko da.

11. 65 urtetik gorako pertsoneri eta ehuneko 33tik gorako desgaitasuna aitortuta dutenei, laguntzen zenbatekoa ehuneko 10 igoko zaie baldin eta obren edo jardueren helburu zuzena eraikinaren edo beren etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzea bada, hala nola, igogailuak instalatzea edo espazio komun edo pribatiboak beren ezaugarri fisiko edo pertsonaletara egokitzea.

7. artikulua. Dosierrak tramitatzea

1. Sozietateko zerbitzu teknikoek tramitatuko dituzte laguntzak. Kontseiluak adostuko du eskabideak aurkezten hasteko epea, eta hedabideetan, sozietatearen eta udalaren web orrietan iragarriko da, baita informazio hori zabaltzeko balio duten bestelako bitartekoetan ere. Edonola ere, eskabideak aurkezteko azken eguna 2018ko abenduaren 31 izango da, edo horren aurre-aurreko egun balioiduna.

2. Laguntzak eskatzeko dokumentazioa obrak hasi aurretik aurkeztu beharko da, betearazteko premiazko agindurik izan ezean —behar bezala dokumentatuta—.

3. Sozietateko zerbitzu teknikoek aholkularitza eta laguntza teknikoa emango diete eskaiztaileei eskabidea presta dezaten; eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Lanen deskripzioa, behar den euskarri grafikoa eta aurrekontua; aurrekontua partiden arabera banakatuta aurkeztuko da, neurriak eta unitateko prezioak barne, gauzatzeko epea ere zehaztuta. Lanen tamainak eskatzen badu, teknikari eskudunak sinatutako proiektua aurkeztu beharko da.

b) Eraikinen ikuskaritza teknikoaren txostena, erkidego osoari dagozkion lanetan.

c) Obretarako udal lizentziaren eskabidea.

d) "Egitura ziurtagiria", 50 urtetik gorako eraikinetan etxebizitzaren barruan eraberritze lanak egiteko, baldin eta zurezko egitura badute eta lanek alderdi hezei (sukaldea eta bainugela) eragiten badiete; egin beharreko lanen justifikazioa zehaztuko da bertan, eta esku-hartzea gainbegiratu dela adierazi beharko da berariaz.

e) Eskatzailearen nortasuna, errenta eta familia-egoera egiaztatzeko agiriak, bai eta laguntzaren bidez birgaitu nahi den etxebizitzaren jabetza egiaztatzeko agiriak ere.

- Jabeen NANA.
- Ohar soil eguneratua, gehienez hiru hilabeteko antzinatasuna duena.
- Jabeen familia-errola.
- Familiako erroldan agertzen diren bizikidetzaren unitateko kide guztien diru-sarreraren egiaztatzea.
- Desgaitasun-gradua egiaztatzeko agiria.

f) Erantzukizuneko adierazpena, eskatzaileak helburu berarekin beste laguntzarik eskatu edo jaso badu.

g) Eraikinen elementu komunetan lanak egiteko, horiek egiteko erabakia, obren esleipena eta partaidetza kuotak egiaztatzen dituzten agiriak. Jabeen erkidegoaren kontu-zenbakia.

h) Erantzukizuneko aitortpena, administrazioako agintari baten edo notario publikoaren aurrean egina, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretako batean ez daudela adierazten duena.

i) Eskatzaileen arteko inork Udalarekiko zorrik ez duela egiaztatzeko agiria.

Udalari eman zaizkion edo udalak dituen agiri guztiak zerrendatuta egon behar dute, bikoi-zketa saihesteko.

Lanen aurrekontu orokorra 10.000,00 eurotik gorakoa bada (BEZik gabe), gutxienez hiru enpresaren eskaintzak aurkeztuko dira, eta lanak egiteko zein aukeratu den zehaztu; proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratu ez bada, berariaz azaldu beharko da zergatia txosten baten bidez.

Eskatzaileek obrak hasi baino hamabost egun lehenago, gutxienez, jakinarazi beharko diote sozietateari modu fede-emailean.

4. Sozietateak, Gasteizko Udalarekin lankidetzan, behar diren kontrol prozedurak eta metodoak baliatuko ditu interesdunak emandako datuak benetakoak diren egiaztatzeko, bai eta proiektuak, aurrekontuak eta epeak zuzenak diren zehazteko ere.

5. Aurkeztutako agiriak ikusirik, eta eskabidea eta eskatuko agiri osagarriak aurkezten diren egunetik kontatuta 4 hilabeteko epean gehienez, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak ezesteko edo onesteko ebazpena emango du, zerbitzu teknikoen proposamena kontuan hartuz: lehen kasuan, horretarako arrazoiak azalduko ditu; bigarrenean, eskatzaileek zein laguntza jaso ahalko duten eta lanak zein epetan gauzatu behar diren zehaztuko da.

6. Administrazioaren isiltasunak ezezo ondorioak izango ditu.

7. Ebazpenaren zein administrazioaren isiltasunaren kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean edo, halakorik ez bada, jakinarazteko epea iraungitzen den egunetik aurrera.

8. Eskabidearen ebazpenaren kontra –edo berraztertze errekurtsoa aurkeztu bada, haren ebazpenaren kontra–, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legean ezarritakoari jarraituz, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean edo, halakorik ez bada, jakinarazteko epea iraungitzen den egunaren biharamunetik aurrera sei hilabeteko epean.

9. Obrak egiten diren bitartean laguntzen titularraren identitatea aldatzen bada, ebazpena egoera berri horretara egokitu beharko da, aldeztu aurretik agiri osagarria tramitatuta.

10. Aurrekontu babestuak berrikusi egingo dira, baldin eta obra horietako zenbatekoan desbideratze hauek izan badira: gora eginez ehuneko 10 baino gehiago, eta beherantz ehuneko 5 baino gehiago, udalari emandako azken obrako agiritan aurkeztutakoarekin bat. Aurrekontu babestu berria hasierakoaren ehuneko 10etik gorakoa edo ehuneko 5 beherakoa bada, egokitu egingo dira laguntzen zenbatekoak ekitaldiko aurrekontuak baimentzen badu. Horretarako, obra amaierako agiriak aurkezteko data hartuko da kontuan. Hori egiaztatu ahal izateko, bi aurrekontuak alderatzeko taula bat aurkeztuko da, zuzendaritza fakultatiboak eta enpresa kontratistak sinatuta, zeinean prezio unitarioak eta neurketak adieraziko baitira, obran zein aldaketa egin den ikusi ahal izateko.

11. 2018ko ekainaren 27ko datuz 50 urte edo gehiagoko antzintasuna duten eraikinen ikuskapen teknikoa egiteko laguntzak jasotzeko, EIT eta horri dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira, edo Gasteizko Udalaren Erregistroan aurkeztu izana justifikatu, alde aurretik indarrean eta erregistratu zegoen EIT izan ezean.

8. artikulua. Ebazpena

Ez zaie laguntzarik emango Gasteizko Udalarik zorrak dituzten pertsona fisiko, ondasun-er-kidego edo jaso gabeko jaraunspenei.

Administrazio Kontseiluak birgaitzeko laguntzak aitortzeko emandako ebazpenek bi urteko indarraldia izango dute, jakinarazten direnetik kontatuta. Horrenbestez, obrak adierazitako epean hasten ez badira, iraungi egingo da, eta laguntza eskabide berria egin beharko da.

9. artikuluko 1. atalean adierazitako epeak ez betetzeak aitortutako laguntzak bertan behera uztea ekarriko du.

9. artikulua. Lanak gauzatzea

1. Babestekoa den birgaitze-lana obra lizentzian nahiz gauzatzeko aginduan ezarritako epean hasi eta burutu beharko da; epe hori luzatu egin ahalko da, alde batek eskatuta eta justifikatu-tako arrazoirik bada, eta horretarako obra-lizentziaren luzapena tramitatu beharko da.

2. Onartutako lanak ezarritako epeetan burutu beharko dituzte laguntzen titularrek, aurkeztutako proiektuan eta udalaren obra-lizentzian aurreikusitakoa betez. Lanak ikuska ditzaten utzi beharko dute, eta laguntza emateko aintzat hartutako xehetasunetakoren bat aldatzen bada, horren berri eman beharko diote sozietateari.

3. Lanak bukatu ondoren –edo, kasua hori bada, lehen erabilerarako lizentzia lortu ondoren– gehienez hilabeteko epean, laguntzen titularrek amaiera justifikatu beharko dute, eta azken prezioa zehaztu. Horretarako, jatorrizko fakturak eta egindako lanen dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko dituzte; nahitaez aurkeztu beharko dituzte, halaber, udalaren obra-lizentzia eta lehen erabilerako lizentzia –obra handiak badira edo lan txikiak izanik emandako lizentziak hala eskatzen badu–, instalazioen ziurtagiriak, bai eta zerbitzuan jartzeari buruzko dokumentazioa ere, Industria Sailak zigilatua, beharrezkoa denean. Erkidegoaren administrazioaren egiaztagiria ere aurkeztuko da, harekin zorrak dituzten pertsonen berri emateko.

4. Laguntzak emateko ebazpenen deuseztasun edo deuseztagarritasun kasuez gain, beste kasu hauetan ere itzularaziko dira emandako laguntzak: obrak ikuskatzeari uko egitea; aurkeztutako datuak faltsuak izatea; horiek konprobatzeko eragozpenak jartzea; onetsitakoaz bestelako proiektu bat egitea; gauzatzeko epeak ez betetzea, eta lanak esleitzea araudi honetan agindutakoaren kontra.

10. artikulua. Laguntzak ordaintzea

Laguntzen zenbatekoa banku transferentzia bidez ordainduko da, eskatzaileak adierazitako kontuan, babestutako lan guztiak bukatu direla egiaztatu ondoren. Laguntzak ordaintzeko ezinbestekoa izango da fakturak ordaindu izanaren banku-egiaztagiria aurkeztea.

Onuradunak eskatzen badu, lanen munta dela eta komenigarria bada, eta aurreikusitako lanaren ehuneko 20 baino gehiago gauzatu bada, Administrazio Kontseiluak laguntza zuzenean kontratistari ordaintzea erabaki dezake, benetan egindako lanaren ziurtagiria aurkezturik eta alde aurretik egiaztatu delarik, lanaren aurrekontu osoaren aldean erabakitako laguntzaren portzentaje berean. Edonola ere, eskatzaileak errealitatearekin bat datozen obra finantzatzeko plan bat eta ordainketa-egutegi bat aurkeztu beharko ditu.

Obra komunitarioa bada eta laguntza aitortu zaien pertsonen ehuneko 70 gutxienez 1. eta 2. errenta-tartean badago, laguntzak zuzenean kontratistari ordaintzea erabaki ahalko da. Benetan egindako lanaren ziurtapena aurkeztutakoan ordainduko da, orotara emandako laguntzaren ehuneko 80an. Onuradunek alde aurretik eskatu beharko dute ordaintzeko, eta Administrazio Kontseiluaren eskumena izango da onartzea. Edonola ere, onuradunek aurretik ordainduta izan beharko dute dena delako ziurtapenean zegokien zatia.

11. artikulua. Onuradunen betebeharrak eta hipoteka-bermea

Eskatzaileek ezargarri zaizkien lege arauak bete beharko dituzte, eta bereziki, sozietateko teknikariei obretara sartzen uzteko betebeharra, obren jarraipena egin bai horien amaiera konprobatzerik izan dezaten.

Halaber, obrak egin direla eta kontrata eta azpikontratei ordaindu izana konprobatzeko beharrezkoa den informazioa emateko beharra dute, baita sozietateko zerbitzu teknikoek eskatutako bestelako edozein informazio ematekoa ere.

Araudi honen 1. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoa betetzeko, laguntza ematen duen sozietateak egoki iritzitako bermeak ezartzeko eskubidea hartzen du beretzat, bai eta hipotekak ere, laguntzak eman aurretik.

12. artikulua. Bestelako diru-laguntza eta laguntzekiko bateragarritasuna

Araudi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak dira helburu bererako ematen den beste edozein laguntza publiko zein pribaturekin, baldin eta diruz lagundu daitezkeen lanen kostuaren ehuneko 80 gainditzen ez badute orotara. Horretarako beste administrazio publiko edo erakunde publiko eta pribatuei eskatutako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena gehitu beharko da.

13. artikulua. Ez betetzeak

Birgaitzeko laguntzak ematea ekarri zuten baldintzak ez direla bete ikusiz gero, beharreko izapideak egin ondoren (interesdunari entzunaldia eskaintza, barne), ordaindutako laguntza itzultzea ekarriko du, dagozkion interes legalak barne, eta halakorik bada, ordaindu gabe dagoen zenbatekoa galtzea.

14. artikulua. Publizitatea eta zabalkundea

Sozietateak emandako laguntzen berri emango du, indarrean dauden araei jarraiki, sozietatearen web orrian eta legez ezargarri diren bestelakoetan iragarritz. Horrekin lotuta, laguntzen eskatzaileek berriazko baimena ematen dute datu horiek zabaltzeko, datu guztiz pertsonalak izan ezik, datuak babesteko legedian horretarako ezartzen dituen bermeekin.

Xedapen iragankorra

2015eko urtarrilaren 1 baino lehen aitortuta dauden birgaitzeko laguntzak izanik arau hau iragartzen denean obrak hasi gabe badaude, ezeztatu egingo dira, eta eskabide berria egin. 4).

Azken xedapena

Behin betiko onespeneren jakinarazpena ALHAOan argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean birgaitzeko laguntzei buruzko arau hau.

Arau honen ondorioak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztutako dosierrei eragingo diete.

Eranskinak

1. Degradatutzat jotako Koroatze auzoko eremuaren mugak.
2. Lehentasunezko alderdien mugak.
 - 1.1. Erdi Aroko hirigunea.
 - 1.2. Abetxuko.
 - 1.3. Adurtza kalea.


- 1.4. Ariznabarra.
- 1.5. Zaramaga.
- 1.6. Zabalgunea.
3. Errenta tarteak, famili unitatearen kide kopuruaren arabera.
4. Balkoiak eta begiratokiak birgaitu, zaindu eta zaharberritzeko azpiprogramaren xede den hemeretzigarren mendeko Zabalgunearen mugaketa.


Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 2an

Lehendakaria


GORKA URTARAN AGIRRE

















GASTEIZKO UDALAK EMATEN DITUEN LAGUNTZAK

BIZIKIDETZA-UNITATEA	JASOTZAILE KOP.	GUZTIRAKO SARREREN MUGA				
		1. TARTEA (Euro)	2. TARTEA (Euro)	3. TARTEA (Euro)	4. TARTEA (Euro)	5. TARTEA (Euro)
1	1	9.000,00	15.000,00	25.000,00	39.000,00	50.000,00
	1	9.473,68	15.789,47	26.315,79	41.052,63	52.631,58
2	1	10.526,32	16.620,50	29.239,77	45.614,04	58.479,53
	1	10.000,00	17.495,26	27.777,78	43.333,33	55.555,56
3	2	11.111,11	18.416,06	30.864,20	48.148,15	61.728,40
	3	11.764,71	19.385,33	32.679,74	50.980,39	65.359,48
	2	10.588,24	20.405,61	29.411,76	45.882,35	58.823,53
4	1	11.764,71	21.479,59	32.679,74	50.980,39	65.359,48
	2	12.456,75	22.610,10	34.602,08	53.979,24	69.204,15
	3 edo gehiago	12.000,00	23.800,10	33.333,33	52.000,00	66.666,67
5	1	13.333,33	25.052,74	37.037,04	57.777,78	74.074,07
	2	14.117,65	26.371,30	39.215,69	61.176,47	78.431,37
	1	13.846,15	27.759,27	38.461,54	60.000,00	76.923,08
6	1	15.384,62	29.220,28	42.735,04	66.666,67	85.470,09
	2	16.289,59	30.758,19	45.248,87	70.588,24	90.497,74
	3 edo gehiago	16.363,64	32.377,04	45.454,55	70.909,09	90.909,09
7	1	18.181,82	34.081,10	50.505,05	78.787,88	101.010,10
	2	19.251,34	35.874,84	53.475,94	83.422,46	106.951,87
	3 edo gehiago	18.000,00	37.762,99	50.000,00	78.000,00	100.000,00
7tik gora	1	20.000,00	39.750,51	55.555,56	86.666,67	111.111,11
	2	20.000,00	39.750,51	55.555,56	86.666,67	111.111,11
	3 edo gehiago	21.176,47	41.842,65	58.823,53	91.764,71	117.647,06

Diru-sarrerak haztatzeko, haztapen-koefiziente eta formula hauek aplikatuko dira:

- § Sarreraren haztapena: $SH = SK * K * E$
- § SK: ZOaren araberako sarrera konputagarriak; PFEZren aitortpenaren zerga-oinarrria (lan etekinetan: ZO + hobariak)
- § K: haztapen-koefizientea kide kopuruaren arabera (1 = 1,00; 2 = 0,95; 3 = 0,90; 4 = 0,85; 5 = 0,75; 6 = 0,65; 7 = 0,55; 8 edo gehiago = 0,50).
- § E: haztapen-koefizientea sarreraren ehuneko 20ko ekarpena egiten duen kide-kopuruaren arabera (1 = 1,00; 2 = 0,90; 3 edo + = 0,85).

